

Anjel Lertxundi idazlearen nobela baten pasarte bat irakurriko duzu.

Wagner izeneko mutil gazte alemaniar hitlerzalea da nobelaren protagonista. Mutilak nazien garaian bere inguruan gertatzen ari zena kontatzen digu.

1. egitekoa

Irakurri testua, eta protagonistaren **sentipenak eta ekintzak** ongien **laburtzen** dituen paragrafoa aukeratu.

2. egitekoa

Zenbait hitzen **esanahia** aurkitu behar duzu testuan.

3. egitekoa

Hitzen erreferentzia testuan aurkitu behar duzu. Hitzak testuan beltzez azpimarratuak dituzu.

0

13

MODU UGARI NEUKAN Alemaniaren alde egiteko eta ahal nuen guztian laguntzen nuen. Ez nintzen bakarra, gauza bera egiten zuen nik ezagutzen nuen neska-mutil askok. Botila hutsak batzen genituen etxez etxe garagardogile eta dendariei saltzeko; jasotako dirua, Alderdiaren hainbat sorospen-erakundetara bidaltzen genuen. Burdina edo kobrea, kartoiak, baztertutako arropa, teilak, ferrak, karburodun lanpara zaharrak, **denetatik** jasotzen genuen eta beti zegoen Alderdiarekin zerikusirik zuen erakunderen bat guk jasotakoari errentagarritasuna ateratzeko prest.

Arropa zaharraren bila ari ginen batean ezagutu nuen frau¹ Gerda.

Egia esateko, aspalditik ezagutzen nuen, ia egunero ikusten nuen eta, etxetik eskolara nindoala, puntua egiten eta puntua egiten bere etxeko **balkoi beiradunean**. Amona Erikaren adin bertsukoa, gaztetan elkarrekin ibiliak ziren eskolan, baina egunen batean haserretu egin ziren, ez dakit ondo zergatik, amonak ez zuen-eta hartaz hitz egin nahi izaten. Behin amari entzun nionez, amona Erika asko mindu zen naziek Faulhaber kardinala harrikatu zutenean; orduan utzi omen zion Hitlerrengan sinesteari, eta jende askorekin hautsi zuen nonbait kardinala defendatzeagatik. Agian frau Gerdarekin ere bai? Nire hipotesia da, ez besterik. Nolanahi ere, amonak beti esaten zuen frau Gerda erotuta zegoela, **ez zela parte onekoa** horren puntua egin behar sukartsua. Katolikotasunaren eta Hitlerren artean aukeratzeko premia izan zuenean, amonak katolikotasuna hautatu zuen. Ez nengoen ados, baina ulertzen nuen: amona Erika garai iragan bateko pertsona zen. Eta frau Gerda? Ero bat: ezin zitzaion beste modu batean deitu egun osoa galtzorratzetxe eragin eta eragin aritzen zen atso bati.

¹ Frau hitzak **andrea** esan nahi du alemanez.

Hartan, behintzat, amona Erikak arrazoi zuen.

Ero bat: errazago eramaten nuen amona Erikaren katolikotasun sutsua, eromena baino. Gerra Handiak eragindako zoro, itsu, **maingu eta herren** ugari ikusten zen bazterretan, **haietako** askok Estatuaren kontura ateratzen zuen bizimodua. Niretzat, porrotaren hondakinak ziren, zaborra: eritasun fisikoak pixkanaka-pixkanaka barneko dohainak ere ahuldu egiten dituelakoan nengoen, nahiko garbi ikusita nuen hori etxean, eta seguru nengoen frau Gerdaren zorotasuna eta aitaren herrena bezalako kasu bat izango zela.

Behin, trapu zaharrak biltzen ari ginen hartan, frau Gerdaren etxe paretik igaro ginen, eta Hermannek eskua jasota agurtu zuen. Tratua duk atso ero horrekin?, galdetu nion. **Kopeta** 30**belztu** eta aldartea ilundu zitzaion, atsoa deitzeaz gainera, erotzat hartu nuelako. Ez nuela ezagutzen, ez nekiela zer den Alemania maitatzea. Mirespen handiz hasi zitzaidan frau Gerdaz hizketan. Munduan aleman onik bazegoen, Soldaduen Amona zela huraxe (hala deitu zion Hermannek, Soldaduen Amona); ia astero joaten zitzaiola bisitan eta ez zela **horretaz** lotsa.

Hator nirekin, egin zidan gonbita.

Nik ez nuen gogo zipitzik, baina Hermannen halako moduz eman zion kasketak frau Gerda ezagutu behar nuela, ezen besotik heldu baitzidan eta ezkaratzeraino eramane. Arropa zaharren zakua zoko batean utzi eta, eskaileretan gora gindoazela, ez dakit zenbat urte lehenago gertatutako istorio bat kontatu zidan. Elur ekaitz batek mendiko praktikak egiten ari ziren bost soldadu harrapatu omen zituen bete-betean. Egunak behar izan zituzten gorpuak elur 40azpitik ateratzeko. Soldaduetako bat frau Gerdaren semea zen, zuen bakarra. Tragedia haren ondoren, puntua egite sukartsuari ekin zion.



(Ihes betea, Alberdania, 2006)

© Ihes betea

1. Egitekoa:

1. Lau adierazpen hauetatik (A, B, C, D) zein da **protagonistaren sentipenak eta ekintzak** ongien laburtzen dituenena. Idatzi letra beheko laukian.

- 10
- A Nobelaren protagonistak, beste neska-mutil alemaniar asko bezala, hondakinak biltzen aritzen dira zaharrei eta behartsuei emateko. Frau Gerdak ere soldaduei laguntzeko noizean behin puntua egiten du. Bere lana asko estimatzen dute bai protagonistak eta bai bere lagun Hermannek.
- B Nobelaren protagonistak nazien alde egiten du lan hondakinak biltzen. Horrela diru pixka bat irabazten du eta etxean laguntzen du, gerraren ondorioz, aita herrena baitu. Hermann bere lagunak soldaduen amona aurkezten dio, biek miresten zutelako.
- 20
- C Nobelaren protagonistak nazien alderdiari laguntzeko hainbat hondakin biltzen lan egiten du. Laguntzeko era hori ongi ikusten badu ere, frau Gerdak egiten duena zoro baten lana dela uste du. Hala ere, bere lagun Hermannek kontrakoa pentsatzen du eta frau Gerda miretsi egiten du.
- D Nobelaren protagonista erabat ados dago bere amonarekin eta frau Gerdarekin. Zaharrek eta ahulek beti arrazoi dutela uste du, bai erlijioan eta bai politikan. Horregatik biltzen ditu hondakinak, gerran zaurituei laguntzeko.

30

Protagonistaren sentipenak eta ekintzak ongien laburtzen		
dituen adierazpena		da.

2. Egitekoa:

Zer esan nahi dute testuan ondoren beltzez idatzita dituzun adierazpenek. Aukeratu ezazu erantzun egokia eta idatzi beheko laukietan, adibidean egiten den bezala.

0. **etxeko balkoi beiradunean** ... (10. lerroan)

- a. ...*etxeko balkoitik begira*
- b. ...*kristalez itxitako balkoian*
- c. ...*etxeko burdinazko balkoian*

101. **ez zela parte onekoa** ... (16. lerroan)

- a. ...*ez zekiela ongi puntua egiten*
- b. ...*susmo txarra ematen zuela*
- c. ...*haserretu egiten zela*

2. **maingu eta herren** ugari ... (23. lerroan)

- a. ...*zauritu larriak eta arinak, era guztietakoak*
- b. ...*hildakoak eta hilzorian zeudenak*
- c. ...*besoa galdu edo hanka zauritutakoak*

20

3. **kopeta belztu** ... (29. lerroan)

- a. *haserretu*
- b. *beltzez margotu*
- c. *kopetan jo*

0-b	1	2	3
-----	---	---	---

3. Egitekoa:

30

Ondorengo **hitzen erreferentzia** testuan aurkitu behar duzu. Hitza testuan beltzez azpimarratua duzu.

Erreferentziak aurkitu eta beheko marretan **idatzi**, adibidean egiten den bezala.

0. Adibidea:

Zeri egiten dio erreferentzia **denetatik** hitzak (5. lerroan)?

Denetatik jasotzen zuten? Zer? Era guztietako hondakinak.

401. Zer da **haletako** (24. lerroan)?

Haletako askok Estatuaren kontura, nortzuk? _____

2. Zer da **horretaz** (33. lerroan)?

Ez zela *horretaz* lotsa, zertaz? _____